Bertaratutako kideak:

**Sonia Rivas Borrell.**
Unibertsitateen ordezkaria.
(Nafarroako Unibertsitatea)
**Iosu Mena Sarasola.**
Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

**Ignacio Toni Echeverría.**
Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria (CERMIN)
**Pedro Rascón Macías.**
Aitortutako ospea duen pertsona
**Pablo Arriazu Amat.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Arantza Zuriarrain Iñiguez.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Germán Chocarro Garbayo.**
Guraso elkarteen federazioen ordezkaria (BRITILA).
**Carmela Muñoz Ventura.**
Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT).

**Mª José Anaut Couso.**
Sindikatuen ordezkaria (UGT).

**Lourdes Larunbe Arretxe.**
Ikastetxeetako administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkaria

**Gil Sevillano González.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**Jabi Arakama Urtiaga.**
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (Geroa Bai).

**Maite Pellejero Olcoz.**
Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien

Iruñean, 2020ko ekainaren 29ko 17:06an, Nafarroako Eskola Kontseiluaren osoko bilkura edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia bildu da Hezkuntza Departamentuko ekitaldi-aretoan, Manuel Martín Iglesias kontseiluburu dela, alboan adierazitako kideak bertan direla, eta Antonio Iriarte Moncayola idazkari dela. Honako hau izan da gai zerrenda:

1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.

2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.

3. Nafarroako Eskola Kontseiluko 1. seihilekoko kontuak onestea.

4. Galde-eskeak

ordezkaria.

**Josu Reparaz Leiza.**
Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (Nafarroako Ikastolen Elkartea)

**Tomás Rodríguez Garraza.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

**María Rodríguez Moran.**
Guraso elkarteen federazioen ordezkaria (HERRIKOA)

Ezin etorria adierazi dute:

**Laura Sanzol Olleta.**
Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)
**Begoña Unzué Vela.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Etorri ez direnak:

**Arantxa Ruiz Vidorreta.**
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS).
**Mikel Rodríguez Aguirreche.**
Enpresarien elkarteen ordezkaria
**Eduardo Mayor Garcia.**
Guraso elkarteen federazioen ordezkaria (CONCAPA).
**Mikel Lizaso Odriozola.**
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (LAB).
**José Jorge Lanchas Rivero.**
Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE).
**Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe.**
Toki entitateen ordezkaria
**Ignacio Mª Iraizoz Zubeldia.**
Nafarroako ikastetxe pribatuen entitate

titularren ordezkaria (ANEG-FERE).

**Cristina Bayona Saez.**
Unibertsitateen ordezkaria (NUP).

**Santiago Álvarez Folgueras.**
Guraso elkarteen federazioen ordezkaria (HERRIKOA).
**Mª Soledad Garjón López.**
Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (AFAPNA)
**Sergio Iribarren Galbete.**

Guraso elkarteen federazioen ordezkaria (SORTZEN)
**Ainara González Rubio.**
Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria
**Mario Fabo Caleo.**
Toki entitateen ordezkaria
**Patricia Fanlo Mateo.**
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E).

**1. Aurreko bilkuraren akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.**

Kontseiluburuak kideei galdetu die ea egin behar duten aurreko bilkuraren aktari buruzko alegaziorik edo iruzkinik.

Akta onetsi da, bertaratutako kideek baiezkoa emanda.

**2. Kontseiluburuaren informazio orokorra.**

Kontseiluburuak labur azaldu du zer parte-hartze izan duen Eskola Kontseiluaren ekitaldi eta bileretan, osoko bilkurak 2020ko ekainaren 3an egin zuen azken bileratik. Iruzkin bat egin du Pedro Rascónek eginiko eskaeraren karietara, Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bilkuretako artxiboetan dokumentazioa mantentzearen karietara. Kontseiluburuak adierazi du dagoeneko egin dela eta laburki azaldu du horretan nola sartu.

Bestalde, CERMINek Suspertu Planari egindako ekarpenei dagokienez, jakinarazi du Hezkuntza Departamentura bidali direla, jakinaren gainean egon daitezen, eta barkamena eskatu du aurretik bidalitako gainerako ekarpenekin ez sartzeagatik.

Ignacio Tonik hartu du hitza, eta adierazi du egokia iruditzen zaiola planteatutako egoera konpontzea.

Kontseiluburuak adierazi du beste bi gairi buruzko informazioa emanen duela: 1.- Hezkuntza Itunari buruzko informazioa, eta 2.- Nafarroako Eskola Kontseiluko kalitate-prozesuei buruzko informazioa.

1.- Hezkuntza Itunari dagokionez, adierazi du aurreikusitako epeak betetzen ari direla, bokalei lehen zirriborro bat eman zaiela eta lan-batzordeak aurtengo irailean bilduko direla, garatzen eta behin betiko idazten hasteko.

German Chocarrok eskerrak eman dizkio kontseiluburuari Hezkuntza Itunaren zirriborroa idazterakoan egindako ahaleginagatik, baina uste du ingelesa oinarrizko dokumentutik kentzean presidenteak ez duela neutraltasunez jokatu haren konfigurazioan, eta, beraz, ez zaiola doitu Nafarroako Eskola Kontseiluko buru gisa duen zereginari.

Kontseiluburuak erantzun dio zirriborroaren testua eztabaidari ekiteko zantzu-dokumentu bat baino ez dela, testua beste autonomia-erkidego batzuetako testuen antzekoa dela, eta, beraz, bere ustez, bere jarduna neutraltasun zorrotz bati egokitu zaiola.

2.- Kontseiluburuak adierazi du ISENeko batzordea ezin izan dela bildu pandemiaren ondorioz, eta ahalik eta lasterren bildu nahi duela. Era berean, horiek egiteko garatuko diren prozesuak labur azaldu ditu, eraikuntza eta erabilera errazteko.

**3. Nafarroako Eskola Kontseiluko 1. seihilekoko kontuak onestea.**

Kontseiluburuak bertaratutako bokalei lehen seihilekoko kontuen edukiaren berri eman die.

Ignacio Tonik hitza hartu du kontuetan agertzen diren zeinu-hizkuntzako interpreteen kostuei buruzko azalpenak eskatzeko, Kontseiluaren jardunaldiei dagokienez, uste baitu prestazio hori doakoa dela.

Kontseiluburuak erantzun dio faktura berrikusita argituko duela, eta kontuak onartzeko eskatu du.

Onartu dira, bertaratutako bokalek baiezkoa emanda.

**4. Galde-eskeak.**

Ez dira izan.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, kontseiluburuak osoko bilkurara bertaratu diren bokaleen parte hartzea eskertu du, eta bilera bukatutzat eman du 17:50ean, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.